

TESTUAK ULERTZEN LAGUNTZEKO IKT TRESNAK

IRAKURRI ONDOREN

1. Kontzeptu-mapak eta eskemak egiteko aplikazioak eta prozedura

Testua irakurri ondoren, oso garrantzitsua da ideia nagusiak eta bigarren mailakoak bereizi eta horien arteko hierarkia ezarriko duten eskemak, laburpenak edo buru-mapak erabiltzea, ikasleek irakurritakoa berrantola dezaten.

Laburpen edo eskema onak egitea oso zaila da; horregatik, testu-genero horietan trebatu behar ditugu ikasleak. Giltza ez da eskema edo laburpen asko egitea, baizik eta nola egin behar diren irakastea.

Irakurketaren fase honetan IKT tresnarik lagungarrienak kontzeptu-mapak egiteko aplikazioak dira. Mapa horien bidez ulertutakoa laburtu eta egituratu egiten da; izan ere, irakurritako testuaren gaineko gogoeta eta azterketa sakona eskatzen dute.


Prozedura

- Hasiera batean, arbel digitala baliatuta, 'eredu' gisa jardun behar dugu eta geuk egin laburpena eta eskema eta 'erakutsi'.
- Boz gora azaldu zer egiten ari garen, laburpena edo eskema egiten ari garen bitartean zein diren erabiltzen ari garen estrategiak eta irizpideak.
- Pixkanaka-pixkanaka, ikasleak gero eta autonomoagoak izango dira eta gidoiak, kontrol-orriak eta txantiloak erabiliko dituzte prozesua bideratzeko.

Tresnak:

Microsoft Windows-ek grafiko eta diagrama ugari ditu oso erabilgarriak kontzeptu-mapak egiteko. Sareak, bestalde beste hainbat aplikazio eskaintzen ditu


Lehen Hezkuntzarako aplikazio hau erraza eta erabilgarria da: BUBBL.US.



Hemen duzue programaren tutoriala:


<http://www.youtube.com/watch?v=EUjEsnH4Sr0&feature=related>

Beste aplikazio batzuk: [Gliffy](#) eta [Mindomo](#). Hemen duzue azken tresna horren bidez sortutako kontzeptu maparen adibidea. Programak berak eskaintzen du [tutoriala](#).



Aplikazio horrek audioak, bideoak edo irudiak estekatzeko aukera ematen du eta horrela, testuak dakarren informazioa osatu. Hala, ikasleek testua ulertzeaz gain, informazioa berrerabiltzeko eta ezagutza berria eraikitzeko aukerak zabaldu egiten dira.


Badago kontzeptu mapak egiteko eta aurkezteko beste aplikazio baliagarri bat: [Spicynodes](#). Hemen dituzue tutoriala eta eredu batzuk: <http://www.educacontic.es/blog/organizando-la-informacion-con-spicynodes>




Ordenagailuan instalatu behar diren programetara joz gero, erabiliena [CMap Tools](#) da. [Tutorial honetan](#) topatuko duzue erabiltzen ikasteko laguntza materiala.

2. Google-docs galdetegi digitalak

[Google Docs](#) galdetegiak aukera ematen dute irakurri ondoko faasean ikasleek zer ulertu duten jakiteko eta ulermen maila egiaztatzeko.





Galderak idatzi eta sistemak, gainera, aukera ematen du laguntza-testua idazteko. Galdera mota ere aukeratu daiteke (zazpi galdera-aukera desberdin ematen ditu, hala nola, test galderak, erantzun irekiak, ikasleek testu laburtzua idazteko...). Beraz, irakurketa-prozesuei lotutako galdera desberdinak egin daitezke prozesu horiek ebaluatu ahal izateko.

KAHOOT

Galdera-erantzunak sortzeko programa. Irakurketa eta jolasa elkartzeko tresna dugu Kahoot. Oso erabilgarria izan daiteke testuak irakurri ondorengo fasean eta hasierako fasean ere bai. Kontzeptu gakoak zehazteko, lexiko berria finkatzeko.... Hemen duzue informazio baliagarria eta adibideak.

<http://www.educaciontrespuntocero.com/recursos/kahoot-primeros-pasos-tutorial/37533.html>

